



PREMIAZKO EBAKUAZIOETARAKO PROTOKOLOA¹ – JOAQUÍN MAYA MUSIKA ESKOLA

- **SOLAIRUKO ARDURADUNAK:** Premiazko ebakuazioak koordinatzeko, ikasturte bakoitzeko lehenengo klaustroan bi arduradun eta bi ordezkio izendatuko dira eraikinak duen solairu bakoitzeko. Bere kargura dauden espazio guztiak hutsik daudela ziurtatuko dute. Halaber, Eskolak hiru lagunekoko talde bat izendatuko du beste pertsonak lagundu, sorotsi edo ebakutzeko eta suak itzaltzeko. *
- **ALARMA AKTIBATZEA:** Sakagailuak igogailuaren ondoan daude, eta badago beste bat Eskolako sarreraren ondoan.
- **TOPALEKUA:** Chinchilla Jeneralaren kalea, BALUARTEREN ONDOAN; KALEA GURUTZATU BEHAR DUGU. EBAKUAZIOA AMAITUKO DA eraikinean zeuden pertsona guztiak TOPALEKURA heltzen direnean.
- **ALARMA AKTIBATUZ GERO Dena ikasgelan utziko da, instrumentuak barne, eta irakasleak beren ikasleekin batera aterako dira eraikinetik, leihoak eta ateak itxita.** Ikasgelatik ateratzean, irakasleak ateko heldulekuan "hustutako gela" kartela zintzilikatuko du.
- Itxarongelan edo eraikinaren kanpoaldean IKASLEAK ITXAROTEN EGON DAITEZKEEN GURASOAK EZIN DIRA ERAIKINERA SARTU. Topalekura joan behar dute.
- Eskaileretatik jaitsiko gara modu ordenatuan, presarik gabe (**DEBEKATUTA DAGO IGOGAILUA ERABILTZEA**).
 - o Instrumentuko irakasle eta ikasleak: eskailera nagusia
 - o Musika Hizkuntza eta Koru Taldea: larrialdietarako eskailerak (solairu bakoitzeko komunaren ondoan)
- **Funtzionamendu-laguntzaileak** sotora joanen dira **igogailua gelditzeko**, hutsik dagoela ziurtatu dutenean.
- **AITA MORET KALEKO ZIRKULAZIOA GELDITU:** Atezaintzan, Eskolako langile guztiak ezagutzen duten puntu batean, txaleko hori bat eta "stop" seinale bat daude eraikinetik irteten den lehen irakasleak biak hartu eta oinezkoen pasabidean kokatu dadin zirkulazioa gelditzeko. Lagun horrek ez du bere postua utziko pertsona guztiek topagunera joateko kalea gurutzatu duten arte.
- **IKASGELEN KONTROLA:** Irakasle bat arduratuko da Atezaintzako "ebakuazioak" puntutik txaleko laranja bat eta ikasgelen kontroleko koaderno hartzeaz. "Ok" markatuko du solairu-arduradun batek bere solairua egiaztatuta dagoela komunikatzen dionean.

¹Zirkular hau ebakuazioetarako barne-protokoloaren laburpen informatiboa da.

• Esku-hartze motaren arabera, talde horretako langileek prestakuntza nahikoa eta egokia izan behar dute.